BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA:
GASOLIOEN ETA GASOLINEN LAGINAK HONDAKIN ARRISKUTSU GISA BILTZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA EMATEA.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 12. artikuluan jasotakoaren arabera, Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzari dagokio, bere eskumenen esparruan, petrolio-produktuen kalitatea eta zehaztapen teknikoen kontrola.

Urtarrilaren 31ko 61/2006 Errege Dekretuak, gasolinen, gasolioen, fuel-olioen eta petrolio-gas likidotuen zehaztapenak zehazten dituenak, itsas erabilerarako zenbait bioerregairen erabilera eta erregaien sufre-edukia arautzen dituenak eta apirilaren 17ko 290/2015 Errege Dekretu bidez aldatuta izan denak, honako hau ezartzen du bere 7. artikuluan:

"98/70/EE, 2003/17/EE, 1999/32/EE, 2005/33/EE eta 2012/33/EB Zuzentarauetan xedatutakoa betetzeko, gasolinen, gasolioen, itsas erabilerarako erregaien eta fuel-olioen espezifikazio teknikoak laginketen bidez kontrolatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte autonomia-erkidegoek, Errege Dekretu honetan jasotako petrolio-produktuen kalitateari buruzko urteko txostenak Europako Batzordeari aurkezteari eta espezifikazioak betetzeari dagokionez".

Urtero, Industria Garapen eta Administrazioaren zuzendariak emandako jarraibide bidez, petrolio-produktuak kontrolatzeko urteko kanpainako laginak hartzeko programazioa zehaztuta geratzen da, eta, horretarako, hiru lurralde historikoetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) produktu motaren araberako laginketaren hileroko banaketa ezartzen da, bai eta aztertuko den lagin kopurua ere. Lagintzen eta aztertzen diren produktu zehatzak honako hauek dira: A gasolioa (GOA), itsasoan erabiltzeko gasolioa (GOS), berunik gabeko 95 gasolina (SP95), berunik gabeko 98 gasolina (SP98) eta automobilgintzarako petrolioaren gas likidotua (PLG).

Alderdi guztiei berme osoa eskaintzeko, produktu baten laginketa-egintzan hainbat lagin berdin hartu behar dira, hasierako analisi bat egin ahal izateko, eta, behar izanez gero, bigarren kontraste-analisi bat eta hirugarren analisi erabakitzaile bat egiteko. Hasierako analisian erabili beharreko laginak analisi-zerbitzua emateko kontratatutako laborategira bidaltzen dira, eta balizko kontraste-analisa eta analisi erabakitzailea egiteko laginak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaritzen zaintzan geratzen dira.

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

Kontratu honen xedea da Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaritzek zaintzen dituzten GASOLIO (GOA eta GOS) eta GASOLINA (SP95 eta SP98) laginak **hondakin arriskutsu gisa** biltzeko eta

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES:
PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA Y GESTIÓN DE MUESTRAS DE GASÓLEOS Y GASOLINAS COMO RESIDUO PELIGROSO.

De conformidad con lo recogido en el artículo 12, del Decreto 410/2024, de 3 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, corresponde a la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial, en el marco de sus competencias, el control de la calidad de los productos petrolíferos y de sus especificaciones técnicas.

El Real Decreto 61/2006, de 31 de enero, por el que se determinan las especificaciones de gasolinas, gasóleos, fuelóleos y gases licuados del petróleo, se regula el uso de determinados biocarburantes y el contenido de azufre de los combustibles para uso marítimo, modificado por el Real Decreto 290/2015, de 17 de abril, establece lo siguiente en su artículo 7:

"Con el fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en las Directivas 98/70/CE, 2003/17/CE, 1999/32/CE, 2005/33/CE y 2012/33/UE, en lo que respecta al control del cumplimiento de las especificaciones y presentación a la Comisión Europea de informes anuales sobre la calidad de los productos petrolíferos contemplados en este real decreto, las comunidades autónomas adoptarán las medidas necesarias para controlar mediante muestreos las especificaciones técnicas de gasolinas, gasóleos, combustibles para uso marítimo y fuelóleos".

Anualmente, mediante instrucción de la persona titular de esta Dirección de Desarrollo y Administración Industrial, queda definida la programación de la toma de muestras de la campaña anual de control de productos petrolíferos, estableciendo la distribución mensual de muestreo por producto en cada uno de los tres territorios históricos (Araba, Bizkaia y Gipuzkoa), así como el número de muestras que serán sometidas a análisis. Los productos concretos que se muestrean y analizan son, Gasóleo A (GOA), Gasóleo para uso marítimo (GOS), Gasolina 95 sin plomo (SP95), Gasolina 98 sin plomo (SP98) y Gas Licuado del Petróleo para automoción (GLP).

Con el objeto de ofrecer total garantía a todas las partes intervinientes, en el acto de muestreo de un producto se toman varias muestras iguales para poder realizar un análisis inicial y, en caso de ser necesarios, un segundo análisis contradictorio y un tercer análisis dirimente. Las muestras para el análisis inicial son remitidas al laboratorio, contratado para la prestación del servicio de análisis, y las muestras destinadas a los posibles análisis contradictorio y dirimente son custodiadas por las Delegaciones Territoriales de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

1.- OBJETO DEL CONTRATO:

El objeto de este contrato es la prestación del servicio de recogida y gestión, **como residuo peligroso**, de las muestras de GASÓLEO (GOA y GOS) y GASOLINA (SP95 y SP98) custodiadas por las Delegaciones Territoriales de

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8Q1B-DJCN
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: JOSE LUIS AZKUE ARRASTOA | 2026/10/05 17:08:40

kudeatzeko zerbitzua ematea, horien zaintza-epea behin bukatu ondoren.

2.- KONTRATUAREN EDUKIA:

2.1 BILDU ETA KUDEATU BEHARREKO PRODUKTU KOPURUA:

Guztira, **urtean 715 litro produktu** bildu eta kudeatu behar dira, GASOLIOAK eta GASOLINAK batuta.

2.2 PRODUKTUA ONTZIRATZEA:

Produktua litro 1eko edukiera duten metalezko ontzietan ontziratuta dago; beraz, **urtean 715 ontzi** bildu eta kudeatu behar dira.

2.3 PRODUKTUA BILTZEKO LEKUAK:

Produktua Lekue hauetan zaintzen da:

- **Jundizko IAT estazioa** (Jundizko industrialdea, Lermandabide kalea, 13, **Vitoria-Gasteiz**). NIMA: 0100162458
- **Arrigorriagako IAT estazioa** (Jambide zerbitzugunea, Bilbo-Zaragoza autobidea, 6.5 km, Arrigorriaga). NIMA: 4890221757
- **Urnietako IAT estazioa** (Erratzu industrialdea, Urnieta). NIMA: 2000990542

2.4 PRODUKTUA BILTZEKO MAIZTASUNA:

Urtean guztira 11 produktu bilketa egin behar dira, hilean bat, eta abuztuan ez da bilketarik egingo.

Jarraian, aurreko ataletan adierazitakoa oinarri hartuta, zerbitzuaren prestazioa xehatzen da, produktu kantitateak, bilketa-puntuak eta aldizkakotasuna zehaztuz:

Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, una vez finalizado el plazo de custodia de las mismas.

2.- CONTENIDO DEL CONTRATO:

2.1 CANTIDAD DE PRODUCTO A RECOGER Y GESTIONAR:

El producto total (considerando la suma de GASÓLEOS y GASOLINAS) a recoger y gestionar **anualmente**, es de **715 litros de producto**.

2.2 ENVASADO DEL PRODUCTO:

El producto se encuentra envasado en recipientes metálicos de capacidad de 1 litro, por lo tanto, el número de envases a recoger y gestionar **anualmente** es de **715 envases**.

2.3 PUNTOS DE RECOGIDA DEL PRODUCTO:

El producto es custodiado en las siguientes localizaciones:

- **Estación ITV de Jundiz** (Polígono Industrial de Jundiz, C/ Lermandabide nº13, **Vitoria-Gasteiz**). NIMA: 0100162458
- **Estación ITV de Arrigorriaga** (Área de Servicio de Jambide, Autopista Bilbao-Zaragoza, km 6.5, Arrigorriaga). NIMA: 4890221757
- **Estación ITV de Urnieta** (Polígono Industrial de Erratzu, Urnieta). NIMA: 2000990542

2.4 PERIODICIDAD DE LA RECOGIDA DEL PRODUCTO:

El **número total de recogidas de producto al año** será de **11**, una al mes, no realizando recogida en el mes de agosto.

A continuación, en base a lo indicado en los apartados anteriores, se desglosa la prestación del servicio definiendo cantidades de producto, puntos de recogida y periodicidad:

	URTARRILA ENERO	**OTSAILA** FEBRERO	**MARTXOA** MARZO	**APIRILA** ABRIL	**MAIATZA** MAYO	**EKAINA** JUNIO	**UZTAILA** JULIO	**IRAILA** SEPTIEMBRE	**URRIA** OCTUBRE	**AZAROA** NOVIEMBRE	**ABENDUA** DICIEMBRE
JUNDIZ	65 l				65 l				65 l		
ARRIGORRIAGA			65 l			65 l		65 l			65 l
URNIETA		65 l		65 l			65 l			65 l	
TOTAL: 715 l	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**	**65 l**

2.5 BILKETARAKO EDUKIONTZIAK ESKURATZEA:

Bilketa bakoitza egin aurretik, kontratuaren enpresa esleipendunak behar diren edukiontziak eman beharko ditu, guztira 65 ontzi, litro bateko edukiera indibidualekoak, produktuz beteak bildu ahal izateko. Edukiontziak garraiatu ahal izateko euskarriren bat (adib. paletak) edo beste elementuren bat behar izanez gero, enpresa esleipendunak eman beharko du, bilketa egin aurretik.

2.6 DOKUMENTAZIOA IGORTZEA:

Produktua jaso aurretik, enpresa esleipendunak zerbitzu honen xede diren hondakinei dagozkien etiketak eman beharko ditu.

Modu berean, kontratuaren enpresa esleipendunak erregelamendu bidez zehaztutako dokumentazio guztia igorri beharko du, produktua behar bezala jaso, lekualdatu eta kudeatu dela egiaztatzen duena.

3.- KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK:

Kontratua Baldintza Tekniko Berezien Agiri honetan adierazitako baldintzetan egingo da, enpresa esleipendunaren erantzukizunpean.

2.5 SUMINISTRO DE CONTENEDORES PARA LA RECOGIDA:

Antes de cada recogida, la empresa adjudicataria del contrato deberá proporcionar los contenedores que sean necesarios para poder contener un total de 65 envases, de 1 litro de capacidad individual, llenos de producto. De ser necesario algún tipo de soporte (p.ej. palets) u otro elemento para poder cargar los contenedores para su transporte, también deberá ser proporcionado, de forma previa a la recogida, por la empresa adjudicataria.

2.6 EMISIÓN DE DOCUMENTACIÓN:

De forma previa a la recogida del producto, la empresa adjudicataria deberá proporcionar los etiquetados correspondientes a los residuos objeto de este servicio.

Igualmente, la empresa adjudicataria del contrato deberá emitir cuanta documentación esté reglamentariamente definida para acreditar la correcta recogida, traslado y gestión del producto.

3.- CONDICIONES GENERALES DEL CONTRATO:

El contrato se prestará en las condiciones señaladas en este Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares, bajo la responsabilidad de la empresa adjudicataria.

Enpresa esleipendunak bete egin beharko ditu kontratuaren xede diren jardueretarako aplikatu beharreko legeak, arauak eta lege-arauak.

Jarduteko moduan zalantzarik izanez gero, enpresa esleipendunak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzara jo beharko du.

3.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA:

Ezingo da jarduerarik hasi Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren baimenik gabe.

Kontratatutako zerbitzua **2027ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2028ko abenduaren 31n amaituko da, Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzan 2.6 atalean jasotako dokumentazioa jaso ondoren**.

3.2 KONTRATUAREN JARRAIPENA:

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritza arduratuko da kontratua koordinatzeaz, kontrolatzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egokitzat jotzen dituen ausazko ikuskapenak egingo ditu.

Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko koordinatzaile bat izendatuko du, Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko pertsona gisa jardungo duena.

3.3 ORDAINTZEKO MODUA:

Enpresa esleipendunak Eusko Jaurlaritzaren Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuaren bidez bidali beharko ditu fakturak (https://www.euskadi.eus/fakturazio-elektronikoaren-zerbitzua/web01-sede/eu/). Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritzak dagozkien ZUZ kodeak emango ditu horiek izapidetu ahal izateko.

Enpresa esleipendunak **hilero fakturatuko du, abuztuan izan ezik**, kontratu honen xede den zerbitzuaren prestazioa, hurrengo hilabeteko lehen hamabostaldian. Hilabetero fakturatu beharreko zenbatekoa kontratuaren balioa 22 hilabetetan zatitzearen emaitza izango da, dagokion BEZa barne.

Prestazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko, egindako lanekin bat datorren agiri bat sinatu beharko du Industria Administrazioaren arduradunak, Industria Garatzeko eta Administratzeko Zuzendaritzakoak.

3.4 INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA:

Kontratua gauzatzen ari den bitartean enpresa esleipendunak eskuratu ahal izango dituen datuak eta informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarenak dira esklusiboki, eta, beraz, ezin izango ditu inola ere aplikatu edo erabili kontratuaren xedean aurreikusitakoez bestelako helburuekin, eta konfidentzialtasunez tratatu beharko ditu.

La empresa adjudicataria deberá cumplir cuanta legislación, reglamentación y normativa legales que le sean de aplicación para las actividades objeto del contrato.

Ante cualquier duda en la forma de proceder, la empresa adjudicataria deberá dirigirse a la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial, del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

3.1 COMIENZO Y FINALIZACIÓN DEL CONTRATO:

No se podrá iniciar ninguna actuación sin el consentimiento del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

La prestación del servicio contratado **se iniciará el 1 de enero de 2027 y finalizará el 31 de diciembre de 2028, una vez recibida la documentación recogida en el apartado 2.6. en la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial**.

3.2 SEGUIMIENTO DEL CONTRATO:

La Dirección de Desarrollo y Administración Industrial, del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, será la encargada de las labores de coordinación, control y seguimiento del cumplimiento del contrato.

La Dirección de Desarrollo y Administración Industrial podrá establecer las medidas de control que estime necesarias para asegurar el correcto cumplimiento de los términos del contrato y realizará cuantas inspecciones aleatorias estime oportunas.

La empresa adjudicataria designará una persona coordinadora de la prestación del servicio, que actuará como persona de contacto con la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial.

3.3 FORMA DE PAGO:

La empresa adjudicataria deberá remitir las facturas a través del Servicio de Facturación Electrónica del Gobierno Vasco (https://www.euskadi.eus/servicio-facturacion-electronica/web01-sede/es/). Desde la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial se proporcionarán los códigos DIR correspondientes para poder realizar la tramitación de las mismas.

La empresa adjudicataria facturará **mensualmente, salvo en el mes de agosto,** la prestación del servicio objeto de este contrato, durante la primera quincena del mes siguiente. El importe a facturar, de forma mensual, será la parte resultante de dividir el valor del contrato en 22 meses, incluyendo el IVA correspondiente.

La forma de constatación de la correcta ejecución de la prestación será mediante documento de conformidad con los trabajos realizados suscrito por el Responsable de Administración Industrial, de la Dirección de Desarrollo y Administración Industrial.

3.4 TRATAMIENTO DE LA INFORMACIÓN:

Los datos e información, a los que la empresa adjudicataria de este contrato tenga acceso durante la ejecución del mismo, son de exclusiva propiedad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por lo que no podrá, en ningún caso, aplicarlos o utilizarlos con fines distintos a los previstos en el objeto del contrato y deberá tratarlos con confidencialidad.

STUA./FDO.: JOSÉ LUIS AZKUE ARRASTOA
INDUSTRIA GARAPEN ETA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE DESARROLLO Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL